

LABek salatu du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak fundazio pribatu baten esku utzi duela osasun ikerketa publikoaren kudeaketa

LAB sindikatuari bidalitako salaketa anonimo batek azken akordioen berri eman zuen, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren mendeko Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko gerentziak (HUN) abalatuta, entsegu klinikoak Navarrabiomed - Fundación Miguel Servet ikerketa tresna publikoak kudeatzeari utzi eta IdiSNara pasa daitezen, Opus Deiren parte-hartze pribatua duen IdiSNara. LABek salatu du erabaki politiko horrek arriskuan jartzen dituela Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa eta ikerketa publikoaren sustapena Nafarroako sektore biomedikoan.

Sindikatu honek egin duen salaketaren azterketaren arabera, Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioko langileei presioa egiten zaie bai entsegu klinikoen kudeaketa —batez ere, giza erabilerako botikak onkologian eta, hematologian garatzea—, bai proiektuen zati handi bat IdiSNAk kudea ditzan, Opus Deiren parte-hartze pribatua duena.



Osasun ikerketarako institutu baten finantzaketa funts publiko eta pribatuetatik dator. Funts pribatu gehienak entsegu klinikoak egiteagatik lortutako diru-sarrereri dagozkie.

Nafarroako Osasun Ikerketako Institutua (IdiSNA). Alderdi pribatuak (Opus Dei), legez, finantziario publikoa eskuratzea ahalbidetuko liokeen ikerketa institutua eratzea eragozten duenez, IdiSNA eratu zen. Horrela, eragile pribatu garrantzitsuen interesei lotuta, logika publiko-pribatua bermatzen da. Hala,



IdiSNAren gobernu organoa (patronatua) *erakunde publikoek* osatzen dute, batetik: Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioa, Osasunbideko Lehen Arreta, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa (NOU), Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP). Eta bertzetik, Opus Deiko enpresa pribatuak: Nafarroako Klinika Unibertsitarioa (CUN), Nafarroako Unibertsitatea eta CIMA.

LABek egiaztatu ahal izan duenez, IdiSNAk lortutako akordio berrietan onartu da Nafarroako Ospitale Inibertsitarioaren eremu publikoan eginikoeta Navarrabiomed - Miguel Servet fundazioaren tresna publikoak kudeatzen dituen entsegu klinikoak (giza erabilerarako botiken garapena) IdiSNAren bidez kudeatuko direla.

Hala ere, Opus Deik, Nafarroako Unibertsitate Klinikaren bidez (CUN), ez du bere entseguak eta ikerketa proiektuak IdiSNaren zerbitzura jartzeko obligaziorik, eta bere jarduerarekin jarraitzen du eta bere diru sarrerei eusten die. Bertze era batera erranda, alderdi publikoak bere lanari eta finantzaketari uko egiten dion bitartean, alderdi pribatuak ez du inolako kalterik izaten jatorri pribatuko finantziazioan, eta entsegu kliniko guztiak kontrolatzen ditu.

LAB sindikatuaren iritziz, egoera horrek eta akordioek **arriskuan jartzen dute Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa, eta, beraz, ikerketa publikoa Nafarroako biomedikuntzaren sektorean**. Era berean, bereziki deigarria da ospitale publikoaren gerentziak eta Osasun Departamentuak, inolako interes gatazkarik gabe, ikerketa institutuko alderdi publiko eta pribatuen arteko asimetria hain nabarmena onartu eta bermatzea.

Azken urteetan, **presioak handituz joan dira, bai Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioko langileak, bai Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko fakultatiboak IdiSNara atxikitzeke, beren proiektuak IdiSNaren bidez deialdietara aurkezteke**. Egoera horrek berekin dakar ekonomia deskapitalizatzea, giza kapitala deskapitalizatzea eta sektore publikoko ikerketa-masa gutxitzea.

LABek ez du onartuko esperientzia eta ospe handiko langile publiko, teknikari eta zientzialariek inolako presiorik jasatea. Alde horretatik, LABek Alfredo Martinez Larrea NOUko zuzendari kudeatzaileari eta Carlos Artundo Osasun zuzendariari eskatzen die zentzugabekeria horri bukaera eman diezaiotela eta beren ahaleginak institutu horren kudeaketa publikoa sustatzeko erabil ditzatela. Bertzenaz, euren ardura politikoak ahalik eta azkarren utzi beharko lituzkete. Halaber, eskatzen du argitzeko zergatik ematen duten ontzat osasuna eta ikerketa publikoak nabarmen ahultzea. Zein onura lortzen du alderdi publikoak IdiSNak ezarritako akordio berri horiekin? Zein da formula horrek alderdi pribatuari dakarkion onura?

Gainera, **LABek eskatzen du fundazio publikoko langileen lan baldintzak behar bezala arautzea, hitzarmen kolektibo propioa negoziatuz, eta langile horiek IdiSNari ez atxikitzea** beren izaera publikoa mantentzeko eta giza kapitala ez husteko. Era berean, eskatzen dugu azter dezatela Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioko langileek dagoeneko egiten dituzten eginkizun berak betetzeko langile egitura bikoizteak kutxa publikoari eragiten dion gastu gehikuntza.

Nafarroa bakarra da Estatuan alderdi pribatua duen institutu eredu duena. Nafarroako ikerketa biomediko eta sanitario publikoa Osasun Departamentuaren mende dago eta funtsean Navarrabiomed - Miguel Servet fundazio publikoaren bidez artikulatzen da. IdiSNarekin, nahiz eta ikerketa zientifikoaren finantziazio gehiena publikoa izan, UPNren erabakiaren ondorioz, Nafarroa da eredu publikoari bizkarra eman dion Espainiako Estatuko kasu bakarra, eta hibrido-eredu bat du, alde publiko batekin eta bertze alde pribatu batekin. Hain zuzen, ikerketa institutuaren Nafarroako akreditazioa etenda dago gaur egun, berrakreditatzeko zain; izan ere, ISCIIIk (Carlos III.a Osasun Institutua) ez zuen ontzat eman publikoa den Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa Ospitalea bigarren mailan gelditzea, Nafarroako ikerketa-institutuaren ardatz eta gune nagusia izan behar zuenean.

Foru hauteskundeetan atarian, **LAB sindikatuak konpromiso sendoa eskatzen die alderdi politikoei, Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioak ikerketa publikoan bere lana egiten jarrai dezan**. Eta, ondorioz, fundazio publikoak har dezala bere gain IdiSNaren kudeaketa eskusiboa, eta ikerketa institutua eta eredu publikoa soilik ezarri.

Kontuen Ganberak 2016. eta 2021. urteetan egiaztatu zuenez, Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioaren ikerketa publikoko jarduerak hazkunde nabarmena izan du: enplegatuak ugartu egin dira, Osasunbideko ikerketa masa kritikoa handitu egin da eta argitalpen eta eragin zientifikoaren zifrak handitu dira Estatuan zein nazioartean. **Nafarroako aurrekontu orokorretan diru partidak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ekarpena eta lotura behar dituzten progresio eta estrategia zientifikoak dira horiek.** Beraz, analisi positibo horri jarraituz, LAB sindikatuaren iritziz ez da bidezkoa pribatizatzeko maniobra hau.

LABek uste du beharrezkoa dela **Nafarroako osasun ikerketa publikoarekin eta bertako langileekin konpromisoa hartzea.** Alde horretatik, nahitaezkoak dira ikerketa publikoaren ekoizpena eta autonomia babesteko neurriak.

Iruñea, 2023ko maiatzaren 3a